

FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Alde batetik, gure aplikazioa garatzeko beharko genukeen lehenengo gauza app bat sortzen dakiten teknikari-talde bat izango litzateke, guk ez baitugu arlo horri buruzko ezagutzarik.

Horrez gain, alor akademikoan esperientzia duen jendea beharko genuke, horrela app-a deskargatzen duten bezeroei aholkua emango ahal diete. Pertsona horiek irakasleak, profesionalak, beste ikasle batzuk edo erretiratutako pertsonak izan daitezke. Horretarako, lagun ahal gaituzten pertsona batzuekin jarri gara harremanetan, adibidez, gure institutuko irakasle batzuekin.

Aipatutako pertsonen gain, unibertsitate publikoek ere lagun gaitzakete. Ez da lehen aldia gazteei karrera edo gradu desberdinak aurkezten dizkieten ekitaldiak egiten dituztela, bide batez, beren unibertsitatearen publizitatea eginez. Aliantza honen bidez, gazteek Espainiako hainbat unibertsitatean aurki ditzaketen graduak edo bestelako ikasketak ezagutu ahal izango dituzte, eta unibertsitate horiek publizitatea egin eta etorkizuneko ikasleak erakarri ahal izango dituzte.

Beste aukera bat gure udalarekin harremanetan jartzea izango litzateke, haiek gure aplikazioaren berri ematen lagundu gaitzakete, edo, are gehiago, hezkuntza sailarekin harremanetan jarri eta laguntza eskatu. Beste institutu batzuekin ere jar gaitzake harremanetan, gure institututik kanpoko irakasle gehiagoren laguntza bilatzeko, edo goi-mailako zikloekin. Aliantza honen bidez, gure udalak ziurtatu ahal izango du jendeak ikasten ematen duen denbora aprobetxatzen duela eta bukatzean lanpostu onak aurkitu ahal izango dituela. Gainera, institutuek konfiantzazko informazioa eman ahal izango diete ikasleei, haiekin zuzeneko harremana duten pertsonen eskutik.

Gainera, lanik ez duten pertsonen ere deskarga dezakete gure aplikazioa. Haiek gazteei lagundu diezaiekete, beren lan-esperientzia partekatuz, eta, gainera, beste karrera edo ikasketa batzuk ere aurkituko lituzkete, ikasketei berriro ekin edo lan-irteera berriak bilatu nahi badituzte.